

COVID DELA ETA FAMILIEI (2020-09-21):

Kaixo familiak:

Denok aurreikusten genuen bezala COVID 19 dela eta ikasturte honen hasiera gogorra izaten ari da.

Ekainean, iraileko egoera ezagutu gabe, hiru agertoki desberdin aurreikusten ziren. Agertoki bakoitza egoera epidemiologikoaren eta osasun-agintarien gomendioen arabera zehaztuko da. Horiek horrela, irailean eskolak KONTINGENTZIA PLAN BAT egin du. Ikasturte hasieran lehen agertokian kokatuta eskola presentzialarekin hasi gara.

Umeak gelaka antolatu dira, gela bateko umeak bere gelakideekin baino ez dira elkartzeko, eta patio eta jantokian maila berekoekin. Hauek burbuilak osatzen dituzte, umeen arteko kontaktuak definitu eta identifikatzea bermatzen dutenak. Horregatik sarrera-irteerak leku eta ordu desberdinetan egiten ditugu, eskola barruan taldeka mugitzen gara, komunak erabilera segurua ziurtatzen da, jantokian ludoteka eta gimnasioa egokitu behar izan dira.

Eskolako jardura segurua bermatzeko askoz, gure egunerokotasunean eman daitezkeen egoera ezberdinen berri eman eta hauen arrian zer nolako jarraibideak hartu behar diren zehazten dira:

EGOERA	Noiz eta nola?	Zer egin orduan?
1. Sintomak dauzkan umea, ez da konfirmatu COVID kausa denik.	Ume batek covidekin bateragarriak diren sintomak baditu eta/edo 37°C-tik gora baditu. Hauek dira zaindu behar dituzten ohiko sintomak: eztul lehorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usaimena galtzea, dastamena galtzea, beherakoa, giharretako mina, zefaleak.	Etxean geratu behar du, eta osasun-zentruarekin harremanetan jarri behar da eta haien gomendioak jarraitu. Posible da PCR frogatik egitea agintzea, eta horren emaitza izan arte etxean egon beharko da, bai bera eta bai berarekin etxean bizi direnak (neba-arrebak barne). Gelakideak eskolara joango dira.
2. Konfirmatutako kasua	PCR frogatik bidez COVIDentzako positiboa konfirmatua denean.	Etxean geratu behar da, eta eskolako zuzendaritzari honen berri eman. Kasu positibo konfirmatu batekin bizi diren pertsona guztiak isolamendu egoeran egon beharko dira, eta zaintza sarea haiekin kontaktuan jarriko da eman beharreko urratsak argitzeko. *
3. kontaktu estua	COVID kasu batekin harreman estua izan duten pertsonak: etxean elkarrekin bizi, edo eskolako "burbuila" edo gela-kurtso berekoak esaterako.	Zaintza-saretik kontaktu estuekin harremanetan jarriko dira, isolamenduan egon behar dute, eta PCR frogatik aginduko dizkiete. Lehen PCR frogatik bat egiten da, eta hau negatiboa bada ere isolamendua mentendu behar da kontaktua eman denetik 10 egun eta bigarren PCR frogatik negatiboa izan arte. **
4. kontaktu	Ume batek kontaktu estua izan badu,	Eskolara joan daitezke kontaktu estua

estu baten ingurukoak (Ez dira kontaktuak)	COVIDekin bateragarriak diren sintomarik gabe, eta probaren emaitzen zain badago. Esaterako, kontaktu estua izan den gela batean eta hortaz isolamendu prebentiboan dagoen umearen neba-arrebak edo gurasoak, nahiz eta PCR frogaren zain egon.	izan den umearen neba-arrebak.
--	---	--------------------------------

* Isolamendua aginduko zaio familia guztiari, eta zaintza sareak PCR-frogak aginduko dizkio, eta isolamenduaren iraupena zehaztuko du.

** Isolamenduak irauten duen bitartean COVIDekin bateragarriak diren sintomaren bat agertuz gero, osasun-zentruarekin telefonoz jarri beharko da honen berri emateko.

Zer gertatze da eskolan umate batek COVIDekin bateragarriak diren sintomak azaltzen baditu?

Temperatura 37tik gora hasten denean temperatura zenbaitetan hartzen zaio eta 37,5era heltzean isolamendu gelara joaten da eta familiari deituko zaio. Familia umearen bila joan beharko da eta dagokion osasun-zentruko pediatriari deitu eta honek emandako jarraibideak bete. Posible da PCR frogagintzea, eta tartean etxean (gainontzeko familiako kideekin etxean isolamendu prebentiboan egotea). Probaren emaitza jakin bezain laster eskolara deituko du.

Eskolako ikasle zein irakasleen artean emaitza positiboa bada eskolak protokolo bat zabaltzen du:

- Eskolak Osakidetzako zaintza sareari deitzen dio egoeraren berri emateko, eta hortik aurrera hauek emandako jarraibideak beteko dira. Orain arte positibo bat egon denean harreman zestua izan duten burbuilako guztiak etxera bidali dira koarentena prebentiboan 10 egunerako.
- Zaintza saretik familia guztiarekin hitz egiten dute (zalantzak argitzen dizkiete, neba-arreba eta hurbileko lagunei buruz galdetzen diete, aholkuak ematen dizkiete...). Harreman estua izan duten umei PCR frogagiteko esaten diete eta isolamenduaren iraupena zehaztuz.

Eskolan une honetan 4 positibo izan dira eta Osakidetzako zaintza sareak agindutakoa betetz 5 gela etxean daude koarentena prebentiboan betetzen.

Honek familien eta eskolako martxa zaildu egiten du.

Egoera honi ahalik eta zuzenen eta lasaien aurre egiten saiatzen ari gara denok (umeak, familiak, irakasleak, jantokiko begiraleak, hezitzaileak, atezainak, garbitzaileak...). Denon ahalegina behar da.

Eskolatik familiei informazioa helarazten ahalegintzen ari gara, nahiz eta bat-batekotasunak eta bizi dugun abiadurak batzuetan laguntzen ez duten.

Zalantzak, ardurak, arazoak... kontsulta ditzazuen hemen gaituzue. Une honetan zuzen hitz egitea zaila bada ere badaude beste bide batzuk: Telefonoz, tutorearekin erabiltzen dituzuenen bidez...

Gaiari buruzko zenbait informazio eskolako webgunean ipintzen joango gara, bertan COVID 19-k atal bat du.

Eskerrik asko egiten ari zareten guztiagatik.